

# Ordizia Hiri Hezitzailea bihurtze bidean da

**N**ola hezi hiritarrak euren inguruarekiko pertsona konprometituak eta arduratsuak izan daitezten? Horixe da 1990ean sortutako Hiri Hezitzaileak mugimenduaren muina. Ordiziak bide hori jorratu nahi du eta lehen pausoak eman ditu dagoeneko, Belen Maiza (EA) zinegotzia buru dela. Arduradunen hitzetan, dagoeneko bi helburu lortu dira: batetik, Udal ordezkarri eta teknikarien asmoak eta proposamenak jasota daude eta bestetik, herritarren zenbait elkarte eta talderen iritziak ere jaso dira. "Bi txosten horiekin, ezta baidarako txosten orokorra egin dugu

eta ondoren Ordizia udalerriko datoen urteetarako Gune-Hezitzailearen helburuak identifikatu eta adostuko ditugu". 2010era arteko lan egutegia zehaztuta dute, hiru urteko proiektua martxan jartzea hitzartu baitzuten Ordiziako Udalak eta EHU/UPVk. Hiri Hezitzailea egitasmoak konpromiso politikoa eskatzen du bai erakundeen eta bai herritarren aldetik. "Elkarrekin, herritarrek eta administrazioak, hiru mailatako lanari ekin beharko liokete": informazioaren azalpen egokia eta gardena; herritarren parte hartzea eta beharren ebaluaketa, proposamen eta ekintzak garatzeko etorki-

## Hezi-Gunearen Proiektu Orokorren zirriborroa landu dute eta orain helburuak identifikatu eta adosten ari dira

zunean. Horiek dira Hiri Hezitzaileen oinarriko printzipioak. Prozesua aurrera eramateko, noski, arlo ezberdinak hartuko dira kontutan: hirigintza, ikasketxeak, kirol mundua, ingurugiroa, osasuna, mugikortasuna, segurtasuna, zerbitzuak, ekipamenduak eta ekonomia, besteak beste. "Denak hartu behar dira kontutan, zeren orain arte heziketa irakaskuntzarekin bakarrik lotu dugu. Ikuspegi mugatu hori gainditu behar dugu". Mundu osoan Hiri Hezitzaileen Elkartek 400 bazkide ditu. Euskal Autonomia Erkidegoan Hiri Hezitzaile bihurtu nahian lanean ari dira, Ordiziako Udalaz gain, Barakaldokoa, Bilbokoa, Donostiakoa eta Gasteizkoa.

## Calendario de trabajo

### 2008

- Definición de las directrices de la Ciudad Educadora.
- En colaboración con los representantes y personal técnico municipal elaborar el borrador del Proyecto con el diseño de las experiencias iniciales.

### 2009

- Diseño del Plan definitivo donde se desarrollarán las actividades diseñadas desde septiembre de 2009 a agosto de 2010.
- Asesoría para la definición de las actividades a realizar a partir del encuentro con sectores involucrados en el proyecto.

### 2010

- Desarrollo de las acciones diseñadas.
- Seguimiento del Plan por parte de las personas comprometidas en la experiencia.
- Análisis y evaluación de los resultados obtenidos.
- Presentación del informe final.



Ordizia avanza en su transformación hacia una Ciudad Educadora.

¿Cómo educar para que las y los ciudadanos sean personas responsables y comprometidas con su entorno? El proyecto Ciudad Educadora pretende dar con las respuestas para encaminarse hacia una reconversión.

La primera fase de la iniciativa, puesta en marcha por los representantes municipales con Belen Maiza a la cabeza, y un grupo de expertos de la EHU/UPV, ha concluido con la elaboración del borrador del proyecto, que servirá como documento de discusión.

En el País Vasco, junto con Ordizia, han apostado por crear una Ciudad Educadora las tres capitales de la CAV y Barakaldo.

La Ciudad Educadora se asienta sobre tres principios: presentación de la información de manera adecuada y transparente; participación ciudadana y evaluación de necesidades, propuestas y acciones a desarrollar en el futuro.



Irune Mujika y Estibaliz García  
Socias de la Asociación de Comerciantes Ordizian

## “La clientela de Ordizia es muy buena por su fidelidad”

Todo apunta a que tenemos que estrecharnos el cinturón. Y qué mejor que poder comprar bueno y barato. Tanto los comerciantes, aunque tiran los precios por debajo del coste real, como los clientes salen ganando con iniciativas como la Feria de Stock organizada recientemente por la Asociación de Comerciantes Ordizian. El balance es más que positivo.

### Zer moduzkoa izan zaizue pilotalekuan berriki egindako stock azoka?

**E.G.:** Oso gustora gaude, bai gu eta bai parte hartu duten gainerako dendariak. Ordiziakoez gain, Lasartetik bi etorri ziren, Zarauztik beste hainbeste eta Tolosatik bat.

**I.M.:** Denak oso pozik geratu gara.

### Estrainekoz antolatu duzue azoka. Berriro ikusiko ote dugu halako ekimenik?

**E.G.:** Ordizian merkatarri elkartek stock azoka antolatzen zuen lehen aldian zen, bai. Baina badugu berriro ere gauza bera egiteko asmoa, baina denbora eman behar diogu. Uste dugu egokiena bi urtetik behin-edo egitea dela. Urtero agian gehitxo litzateke.

Dendako arropa eramaten da baina ez dauka zerikusirik dendara sartzen den bezeroarekin. Hona, dendara, sartzen denak agian azokan buelta txiki bat ematen du. Aukera ona da zeren dendan saltzen den arropa ezin duzu hurrengo urtean oso prezio baxuetan eskaini, batik bat, lehen erositako bezeroei zor diezun errespetuagatik.

**I.M.:** Niri ez zait ondo iruditzen dendan beste denboraldi batzuetako arropa ateratzea eta azoka da modu bat arropa hori ateratzeko.

### Edonola ere, ostalariak barne hartua, Ordizian elkartean 90 bat bazkide zarete. Asko eta asko ez dira animatu, ezta?

**E.G.:** Hori izan da arazoa, bai. Azken urteetan bakoitzak berea egin du baina azoka horren ondorioz, hasi gara berriro ere hitz egiten eta badirudi gogotsu gaudela elkarrekin ekimen berriei bide egiteko.

### Zer eskatuko zenikete Udalari elkarte modura?

**E.G.:** Stock feria antolatzerakoan izugarri lagundu digu Udalak eta ia berari esker atera da aurrera. Eskatu baino gehiago, lehenengo egin behar duguna da proposamenak landu zeren badirudi Udala momentuan behintzat laguntzeko prest dagoela.

Aparkalekuen arazoa betikoa da baina gauza politikak egin daitezke, seinale modukoak jarri Ordizian erostea eskertuz edo... Noski, azkenean atetik barrurakoak balio du, baina Eguberrietan adibidez, zerbait elkarrekin beti egiten dugu. Denen artean gauzak egiten direnean antzematen da. Positiboa da. Adibidez, aspaldian ez da egin gala deitzen zitzaiona, denden desfilea baina jende asko erakartzen zuen. Zenbat eta gehiagok parte hartu, are eta indar gehiago dauka.

### Betidnik izan du Ordiziak merkataritza aldetik fama ona. Eusten al zaio?

**E.G.:** Hala da. Jendea kanpotik ere etortzen da. Zentzu horretan, azken urteetan, Ordizia asko hobetu da. Herri luzeagoa da eta paseatzeko egokiagoa, denda pila bat daude...

### Dendariok negarti fama ere baduzue. Arrazoiarekin?

**E.G.:** Nik duela 9 urte ireki nuen denda. Hasitakoan esan zidaten ez zirela urterik hobereak eta uste dut okerrera egin dutela eta, hala ere, nahikoa pozik nago. Noski, beti gehiago saltzea nahi duzu, baina tira...

**I.M.:** Nik esan dezakedan bakarra da pozik nagoela, zeren urtebete da hasi nintzela.

### Zer nolako bezeroa da Ordiziakoa?

**E.G.:** Oso bezero ona da. Oso ona. Daukan fideltasunagatik. Harritu egiten nau bezero batzuk, ez dizut esaten hiler, baina bai denboraldiero nola etortzen diren. Denboraldiero pare bat aldiz sartzen dira gastua egitera. Batzuk konfidantza ematen diezulako. Nik behintzat, bai. Asko bisita egitera etortzen dira eta ez dute ezer erosten baina badute horretarako lasaitasuna. Denda erakusketa bat da.

**I.M.:** Kanpotik ere etortzen da jendea eta etortzen denak etortzen jarraitzen du. Askotan gehiena ahoz aho zabaltzen denak balio du.

### Krisi hots handia entzun al duzue?

**E.G.:** Oraingo, esateko "krisia dago eta askoz ere gutxiago saldu da", ez. Eta uste dut egon direla asteak ia kontrakoak. "Erosi egin beharko, datorren urtean ez dakit ahal izango dudana-eta" horrelako esaldiren bat ere entzun diot bakarren bati.

**I.M.:** Asko ari da saltzen.



Urriaren Ordiziako kiroldegian egindako Stock Azoka.



**Luminarias menos contaminantes.**

**100 nuevas luminarias para reducir el gasto energético y la contaminación lumínica**

Urtean 27.600 kilowatt gutxiago kontsumituko dira Sanperion, Arramendin eta Altamiran farolak aldatzearekin. Argi-kutsadura murriztuko duten 100 argi ipini dira. Goiko estalia ez duten kale-argiek argitasunaren eta, beraz, energiaren %55 baino gehiago alferrik goraka galtzen dute. Jarritako berriek, ingurumen gomendioei jarraituz, gehien jota argitasunaren %2 gora botako dute. Hurrengo urtean, Ordiziako orografia kontuan hartuta, goitik beherako norabidea jarraituko da, Bustuntzaraino ailegatuz.



**Nuevos bancos.**

**Eserleku berriak**

Udalak hamar eserleku berri ipini ditu. Sei Filipineta kalean; hiru, P21 ean eta bat Joseba Rezola pasealekuan. Halaber, biltokian zeuden beste bederatziz ere jarri dira. Izan ere, denbora gutxian, 15 bat txikituta agertu ziren.



**Pipicanes para mantener limpias nuestras calles.**

**Pipikanak, kaleei garbi eusteko**

Hainbat herritarren eskaerari erantzunez, hiru pipikan jarri dira kaleei txukun eusteko asmoz. Txakurren kakak poltsatxo batean sartu eta ontzira bota ahal izango dira. Pipikanak Joseba Rezola eta Bizkaia pasealekuetan eta Kale Nagusian jarri dira.



**AFAGIK Ordizian ospatu du Alzheimerren Mundu Mailako Eguna.**

**AFAGI celebra el Día Mundial del Alzheimer en Ordizia**

La Asociación de Familiares de Enfermos de Alzheimer, AFAGI, celebró el Día Mundial del Alzheimer en Ordizia, el pasado 21 de septiembre. Tras un acto en el Palacio Barrena, los afectados y sus familiares tuvieron una comida en el Colegio Urdaneta.



**Mejoras en accesibilidad**

**Abierta la escalera que une las calles Joan de Amezqueta y Andre Maria**

Tras dos meses de obras, la escalera ubicada junto a la casa Torrea y que comunica las calles Joan de Amezqueta y Andre Maria Kalea se ha abierto a los peatones. Esta escalera de trazado longitudinal que sustituye a la existente anteriormente es más accesible, permite una mejor limpieza y ha propiciado la ampliación de la terraza existente en la parte superior.



**Udalak tasa eta zergei %5,2 erantsiko die batezbeste.**

**Las tasas e impuestos municipales subirán el IPC**

El incremento en la tarifa de tasas e impuestos será de un 5,2% cuando el IPC interanual, de junio de 2007 a junio de 2008, es del 5%. En cualquier caso, la subida será algo mayor, es decir, del 8%, en el caso del agua y de la basura. Según el concejal de Hacienda, Jon Txurruka, el incremento "responde a la decisión de la Diputación de estandarizar estos costes en todos los municipios del territorio histórico, armonización que pretendemos que, en nuestro caso, sea al menos gradual". Además, es de señalar que el nuevo sistema de gestión de los residuos, que apuesta por el compostaje, es más respetuoso con el medio ambiente pero también más costoso.

**El Consejo Municipal de Bienestar Social echa a andar con un fin: mayor calidad de vida para todas y todos**

**Ordiziako Udalak berriki onartu du Gizarte Ongizateko Udal Kontseiluaren araudia, kontsulta eta aholku-emaile izaera emanaz Gizarte Zerbitzuen plangintza, antolakuntza eta funtzionamendu gaietarako. Kontseiluaren ustez, guztioi eragiten diguten erabakiak hartzea ez dagokie erakundeei soilik, baizik eta elkarteek askoz ere funtzio aktiboagoa izan behar dute. Foro hau erdeinatutako taldeei bizi-kalitate hobea eskaintzeko asmoz sortu da eta pertsona horien eta Udalaren artean zubi-lana egiteko xedez, arazok konpontzeko orduan udal jarduera eraginkorragoa izan dadin. Finean, helburuetako bat da ezkutuan gordetzen edo ikusi nahi ez dugun errealitate bat azalera. Kimetz elkarteak Belen Alberdiren, Nagusilan eta Gueskeko ordezkari den Miguel Calvilloekin eta Ongizate saileko zinegotzi den Iñaki Dubreuilekin egon gara.**



Iñaki Dubreuil, Belen Balerdi eta Miguel Calvillo.

**La idea de crear un Consejo lleva gestándose años, ¿no es así?**

- Belen Balerdi: Se inició en 2003 con el Plan Estratégico.
- Iñaki Dubreuil: De ese Plan Estratégico salió un diagnóstico y una serie de propuestas que se presentaron en 2006. Una de ellas era la creación de un Consejo Municipal de Bienestar Social. Hemos ido dando los pasos necesarios para el fortalecimiento del grupo y para la elaboración del reglamento.
- B.B.: Ya se ha aprobado y, en teoría, el Consejo echa a andar.
- Miguel Calvillo: De todos modos, todos los que estamos en el Consejo detrás tenemos una entidad en marcha. Estábamos ya incorporados a la vida municipal como asociaciones. No hay nadie a título personal.

**Se trata de abrir un cauce a la participación ciudadana.**

- M.C.: El contenido central se basa en que entendemos que en el área social debemos participar, no sólo las instituciones, sino también los ciudadanos a través de las diferentes asociaciones. Y esa política de trasladar preocupaciones, inconvenientes, modos de resolver problemas tiene que ver de algún modo con las decisiones que toman las instituciones. Hay un interés mutuo, tiene que darse una intercomunicación mutua entre Ayuntamiento y asociaciones. Queremos que el pueblo no sea una ciudad muerta, sino que haya una transmisión de las inquietudes sociales que se palpan y que el Ayuntamiento comparta las decisiones que vaya tomando.
- I.D.: A nosotros nos interesa que el Ayuntamiento esté a pie de calle y recoja todas esas preocupaciones e inquietudes de las asociaciones para incorporar a la vida municipal y resolverlas con mayor cercanía y realismo.
- M.C.: La Ley de Servicios Sociales del 96 apuesta por generar y trasladar al ciudadano la capacidad de intervenir en las problemá-

ticas municipales. Estamos hablando de un derecho fundamental. Se habla mucho de participación ciudadana pero luego, en la práctica, a los Ayuntamientos les cuesta entender que tiene que haber ahí un entendimiento.

- B.B.: Lo que pasa es que para que el Consejo tenga futuro es importante que las acciones que presenta se tengan en cuenta tanto a la hora de la elaboración de presupuestos como en todo aquello que afecta a otras áreas del Ayuntamiento.

- I.D.: Recibir propuestas es básico para nosotros. De hecho, de las propuestas que se presentaron en 2006, la primera pieza que se ha puesto es la del Consejo, pero en cuanto a mejorar la vertiente comunicativa, pues lo hemos hecho con ruedas de prensa y charlas sobre la Ley de Dependencia, sobre complemento de pensiones, sobre el Alzheimer, la esclerosis, hay circulares internas... Y por ejemplo, en cuanto a formación del voluntariado, hemos creado la delegación de participación ciudadana, hemos celebrado la I. Feria del Voluntariado, etc. Respecto al plan de acción para la adaptación de edificios para personas con dificultades de movilidad, incrementamos la partida presupuestaria de 30.000 a 42.000 euros. Y también se ha elaborado el plan de accesibilidad. Hay una serie de acciones propuestas desde el núcleo de Servicios Sociales que se están cumpliendo. Avanzaremos también en materia de inmigración. Todas las propuestas han sido recogidas, lo que pasa es que el tema de la coordinación socio-sanitaria, por ejemplo, va para lejos.

**¿El Consejo está abierto a más asociaciones?**

- I.D.: Están siete asociaciones y pretendemos integrar a Kattalin, Donantes de Sangre, Aspanovas...

**Asociaciones que integran el Consejo**

- 1 Nagusilan
- 2 Gueske
- 3 Cáritas
- 4 Asociación de Jubilados y Pensionistas
- 5 Kimetz
- 6 Cruz Roja
- 7 DYA

## El vial de Agirrebide se convertirá en una ancha carretera bidireccional

Upabi eta N-1eko irteera lotzen dituen bidexkan errepide berri bat eraikiko da, herrigunera nahiz N-1era sartzeko, bi norabidekoa izango baita. Halaber, tarte horretan dagoen zubi zaharra erabat berrituko da segurtasuna bermatzu ahal den heinean.

Ez da eremu horretako esku hartze bakarra izango. CAF enpresaren eraikuntza-eskubideak direla eta, Arau Ordezkatzaileetan modifikazio puntuala egingo da eta aprobetxamenduaren %10 Udalari dagokionez, 3.000 m<sup>2</sup>-ko gunea publikoa izatera pasako da. Toki horretan skate-park bat eraiki nahi du Udalak.

CAF enpresaren ingurumariet eraldaketa sakona jasan go dute hurrengo urtean. Eraikuntza-eskubideak direla eta, enpresaren handitze nahiak Arau Ordezkatzaileetan aldaketa puntual bat egitera behartzen du. Horrek eremu guzti horren berrantolaketa dakar, Jose Miguel Santamaria alkatearen hitzetan. Hobekuntzak nabarmenak izango dira, batik batik, segurtasunari eta aisialdiari begira. Batetik, Agirrebidea kalitatezko errepide bat bihurtuko da. Gaur egun, Upabi eta N-1eko irteera lotzen dituen bidea oso estua da eta ez dago baldintza egokienetan. Datorren urtean errepide zabal bat eraikiko dute eta bi norabidekoa izango da. Bidegorria ere eramango du. Bide berriak Malkasko zein herrigune inguruko trafikoa arintzen lagunduko du eta N-1era sarrera erraztu ere bai. Halaber, tarte horretan dagoen trenbide gaineko zubi zaharra erabat eraberrituko da, erabiltzaileen segurtasuna bermatzu. Lan horiek CAF enpresaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean finantziatuko dira.

Baina ez dira eremu horretako aldaketa bakarrak izango. CAF enpresak, bere eraikuntza eskubideak direla eta, aprobetxamenduaren %10 Udalari utzi behar dio. Horrek esan nahi du Udalaren eskuetara pasatzen dela 3.000 m<sup>2</sup>-ko gune bat. Eremu horretan, justu gaur egun aparkalekua dagoen toki berean, Udalak skate-park bat eraikitzea aurreikusten du beste aisialdi eta bilgune bat sortuz. Gainera, ondo komunikatuta egongo da. Horretarako, Bonberia parean, Oria ibaiaren gainean, oinezkoentzat soilik izango den zubi bat eraikiko da, Malkasko eta CAFen instalakuntzak lotuko dituena.

El vial que conecta Upabi con la salida a la N-1, se convertirá en una carretera de calidad y bidireccional el próximo año, de modo que se accederá de forma más fácil y directa a la N-1. La carretera se complementará con un bidegorri.

También reconstruirán el viejo puente que pasa sobre las vías del tren, garantizando, en gran medida, la seguridad de los usuarios.

Dicha intervención será financiada por CAF, el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La cesión del 10% de suelo que hará la empresa CAF al Ayuntamiento por sus derechos edificatorios, hace que pase a manos del consistorio un espacio de 3.000 m<sup>2</sup> donde está previsto construir un skate-park bien comunicado a través de un nuevo puente peatonal a la altura del edificio de la antigua Bombería.



- 1 Zubi berria - Nuevo puente.
- 2 Skate park.
- 3 Errepide berria - Carretera nueva.


## Bidegorri sarearen proposamena Agenda 21eko foroan aztertzen Erdigunea ikastetxeekin lotzea, Udalaren lehentasuna

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuta du Ordizia eta Zaldibia lotuko duen bidegorria eraikitzea, lurralde historikoko sarea osatzen joateko. Foru erakundeak datorren urte hasieran egingo die lanei; bere aldetik, Udalak udalerrria ondo komunikatzeko ahalegina egingo du, bi adar erantsiz.

Bata Gudarien etorbidetik Urdaneta ikastetxera joango da. Bestea, berriz, Juan XXIII plaza paretik abiatuko da eta Kiroldegira, Oianguren Institutura eta Jakintza Ikastolaraino joango da.

Datorren urtean eraikiko dira bide horiek. Abenduan lanak hastekoa asmoa du Udalak.

Bidegorrien planoak.  
Plano de los bidegorris.



La red de bidegorris de Gipuzkoa sigue sumando kilómetros. El plan, impulsado por la Diputación Foral, contempla una red de 378 km. en tramos interurbanos. Más de la mitad ya son transitables.

No es menor el esfuerzo invertido por los municipios en hacer llegar el bidegorri a todos los puntos de interés mejorando la comunicación interna, a favor de la movilidad no motorizada. También Ordizia ha apostado por ello. Para principios del año que viene está previsto el inicio de la construcción del vial que irá de Gudarien etorbidea hacia Zaldibia, tramo de cuya ejecución se encargará el ente foral.

Paralelamente, el Ayuntamiento quiere construir dos ramales. Uno de ellos, de una longitud de más de 500 metros, llegará hasta el Colegio Urdaneta. El otro unirá al vial que recorre Gudarien etorbidea para conectar el polideportivo, el Instituto Oianguren y Jakintza Ikastola sumando un trayecto de 400 metros. Ambos ramales se construirán a lo largo del año que viene. Otro tramo previsto para el 2009 es el de la nueva urbanización de San Juan.

Pero la red interna de bidegorris, que ha sido presentado en el Foro de Agenda 21 y que actualmente esta en fase de estudio, abierto a las aportaciones que se realizan desde el mismo, aglutina, como se puede observar en el mapa, más recorridos que se irán creando. También se apuesta, por ejemplo, por conectar Malkasko con la Universidad de Mondragón o por unir el centro de Ordizia con Beasain. El Ayuntamiento tiene la intención de empezar las obras en diciembre.

# 2009an hasiko dira eraikitzen Babes Ofizialeko lehenengo 90 etxeak San Juanen

**Urbanizazio lanei ekin zaie dagoeneko eta Babes Ofizialeko etxeetatik 90 bizitza, datorren urteko lehen seihilabetean hasiko dira eraikitzen.**

**Guztira, auzoan 572 etxe altxatuko dira, libreak barne.**

**Proiektu osoa faseka egingo da. Lehen bi faseak urbanizazio lanei dagozkie eta bi urte beharko dituzte horretarako. 6.339.255 euroko aurrekontua dute lehen lan horiek.**

**D**atozen urteetan San Juan auzoan emango den eraldaketak Ordiziako argazkia errotik aldatuko du. 10 hektareako eremuan esku hartuko da, udalerrira modu orekatuan zabalduz. Gauzatuko den proiektu osoaren aurrekontua 9.880.657 eurokoa da.

Dagoeneko hasi dira obrak eta beraz, bi urte barru amaituta egongo dira urbanizazio lanak. Bertan, exekutatuak den proiektuaren arabera, 572 etxebizitza eraikiko dira, haietatik 415 Babes Ofizialekoak, hau da, %72,55. Gainontzekoak libreak izango dira eta libre horietatik 41, adosatua.

Proiektu hau Ordizian dagoen etxebizitza arazoa konpontzeko xedez jarri da abian.

Edonola ere, babestutako etxebizitza horiek fase ezberdinetan gauzatu dira. Datorren urtean 90 hasiko dira eraikitzen. Hiru etxe-bloke, alegia. Haietatik baten proiektua jada egina du enpresa eraikitzaile batek eta datorren otsailean lanean hastekotan da. Beste bi blokeak, berriz, Udalak egingo ditu, Ordizia Lantzenen bidez, eta ekainean hasiko dira eraikitzen. Azken etxe horien oinarriko proiektuaren esleipena lehiaketa prozesuan dago jada.

Babes Ofizialeko etxe horiek eskatzeko epea datorren uda aurretik zabalteko asmoa du Udalak. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak ezarritako irizpideak erabiliko dira etxeak zozketatzeko orduan.

Ordizia Lantzenek bi bloke horiez gain, beste 50 BOE eta 30 libre sustatuko ditu, etxe guztien, %24,47.

Gainerako etxeak lursailen eta enpresa eraikitzaileen arteko negoziaketak aurrera doazen heinean joango dira eraikitzen. Izan ere, lankidetzaren sistemaren bidez kudeatuko da eremu hori guztia. Hau da, urbanizazio obrak Ordizia Lantzenek egingo ditu, baina lurren jabeek ordainduko dituzte gastuak. Jabe horiek beraiek har dezakete eraikitzaile izaera edo lurra beste eraikitzaile bati saltzeko aukera dute.

Momentuz, urrian urbanizazio lanak hasi dira. Bi urte iraungo dute eta 6.339.255 euro kostako dira. Lursailak prestatzeko behar diren lur-erazketak eta euste-hormak egingo dira, saneamendu eta zerbitzuen azpiegiturak jarri, eta errepideak, espaloiak eta bidegorria eraiki.

## Zubi berriak San Juan eta La Paz poligonoa lotuko ditu

Udalerriko barne komunikazioa hobetzeko asmoz, urbanizazio berriarekin batera ibaiak banatzen dituen San Juan eta La Paz poligonoa lotuko dituen zubia eraikiko da. Etxe berrietako bizilagunek eskurago izango dituzte hainbat zerbitzu eta herriguneko trafikoa arintzen lagunduko du azpiegiturak.



**Los bloques de viviendas se irán edificando poco a poco, en la medida en que las empresas constructoras se lancen a ello. De momento, existe el compromiso de comenzar a edificar 90 VPOs el próximo año.**

**El parón inmobiliario ha hecho que muchas empresas entren de cabeza en proyectos de VPO impulsadas por la demanda de vivienda protegida, cosa que hasta ahora no ocurría. Ante ello, el Ayuntamiento y la Sociedad Pública de Gestión Urbanística están ya manteniendo conversaciones con diferentes empresas y seguirán trabajando en la misma línea.**



**Los trabajos de urbanización han comenzado ya y 90 de las VPOs se empezarán a construir el primer semestre del próximo año.**

**En total, se edificarán en el barrio 572 viviendas, incluidas las libres.**

**El proyecto se ejecutará por fases. Las dos primeras corresponden a los trabajos de urbanización y se prevé que duren dos años. El presupuesto para ello asciende a 6.339.255 euros.**

En cualquier caso, las VPO se edificarán por fases. El año que viene darán comienzo a 90. Es decir, a tres bloques de viviendas. El constructor de uno de ellos ha desarrollado ya el proyecto para dar inicio a las obras el próximo mes de febrero. De la construcción de los otros dos bloques se encargará el Ayuntamiento, a través de Ordizia Lantzen, y prevé que en junio podrán comenzar a construir. El proyecto base de estas últimas viviendas está ya en proceso de adjudicación.

El Ayuntamiento tiene previsto abrir el plazo de solicitud para esas primeras VPOs antes de verano. Los criterios que se utilizarán para el sorteo serán los que ha fijado el departamento de Vivienda del Gobierno Vasco. Además de los dos bloques referidos, corresponde a Ordizia Lantzen promover otras 50 VPOs y 30 libres, es decir, la gestión del 24,47% del total de las viviendas.

El resto de viviendas se irá construyendo según vayan cerrando acuerdos los propietarios de los terrenos y las empresas constructoras porque el desarrollo del proyecto se gestionará por el sistema de cooperación. Es decir, Ordizia Lantzen se encargará de las obras de urbanización, pero son los propietarios de suelo quienes las vayan a financiar. Dichos propietarios pueden optar por adoptar ellos mismos el papel del constructor o bien, vender el suelo a otra empresa.

De momento, en octubre han comenzado los trabajos de urbanización. Durarán dos años y costarán 6.339.355 euros. Durante ese periodo, se harán los desmontes y muros de contención necesarios para preparar los terrenos, se instalarán las infraestructuras de saneamiento y servicios, y se construirán los viales, aceras y el bidegorri.

## El nuevo puente unirá San Juan con el polígono de La Paz

Con objeto de mejorar la comunicación interna del municipio, junto con la urbanización se edificará un puente sobre el río que unirá las nuevas casas con el polígono de La Paz. Los vecinos de San Juan tendrán más a mano diferentes servicios y se aligerará en gran medida el tráfico del centro.

- Babes Ofizialeko Etxebizitzak  
VPOs
- Etxe-bloke libreak  
Bloques de vivienda libres
- Etxebizitza libre adosatua  
Viviendas libres adosadas
- Amenabar enpresa otsailen hasiko da eraikitzen  
La empresa Amenabar comenzará a construir en febrero
- Ordizia Lantzen ekainean hasiko da eraikitzen  
Ordizia Lantzen empezará a construir en junio

## El proyecto de San Juan en números

## San Juango proiektua zenbakitan

### 108.470,165 m<sup>2</sup> de superficie

El proyecto abarca una superficie de más de 10 hectáreas en San Juan.

### 9.880.657 euros de presupuesto

El presupuesto total del proyecto, incluyendo las nueve fases, es casi de 10 millones de euros. Las primeras dos costarán 6.339.255 euros.

### 572 viviendas

Construirán, en total, 572 viviendas. De ellas, 157 serán de carácter libre y, de entre ellas, 41, serán viviendas adosadas.

### 415 VPO

Será el mayor número de VPOs que se haya construido hasta ahora en Ordizia: 415. El próximo año comenzarán a construir 90 de ellas.

### 26.000 m<sup>2</sup> de zona verde

La nueva urbanización contará con 26.000 m<sup>2</sup> de zonas verdes y espacios libres. Las viviendas ocuparán 30.000 m<sup>2</sup> y otros tantos serán para viales, aceras y el bidegorri. El resto se ha reservado para equipamientos.

### 108.470,165 m<sup>2</sup>ko eremua

Hamar hektareatik gora ditu esku hartuko den San Juango eremuak.

### 9.880.657 euroko aurrekontua

Proiektu osoaren aurrekontua, bederatziz faseak barne, ia 10 milioi eurokoa da. Lehen bi faseak, berriz, 6.339.255 euro kostako dira.

### 572 etxe guztira

San Juango eremuan guztira 572 etxebizitza eraikiko dira. Horietatik, 157 libreak izango dira eta libre horien artean, 41, adosatua.

### 415 BOE


Ordizian inoiz egin den BOE kopururik handiena eraikiko da: 415. Horietatik, 90 etxe, datorren urtean hasiko dira eraikitzen.

### 26.000 m<sup>2</sup> berdegune

Proiektuaren arabera, 26.000 m<sup>2</sup> hartuko dituzte berdegune eta espazio libreak. 30.000 m<sup>2</sup> etxeentzat izango dira eta beste hainbeste errepide, espaloi eta bidegorrientzat. Gainerakoa, ekipamenduentzat.

**Zubi berria**  
*Nuevo puente*

# Las perspectivas de colaboración se van abriendo gracias a los lazos estrechados entre países



“ Urdanetaren jaiotzaren 500. urteurrenaren ospakizun ekitaldiek helburu bat zuten: nabigatzailer ordiziarrek historian merezi duen toki aularrikatzea. Hasierako asmo eta nahiak aise gaintu dira. Munduan zehar harrera ezin hobea izan du Urdanetaren oroitzenak eta tokian tokiko arduradunek gogotsu eta esku zabalik, egitarau zabalak antolatu dituzte. ”

Itzal handia egin du Urdanetak Perun, Filipinetan, Mexikon eta baita Portugalen ere. Nabigatzailearen oroitzena bizirik izan da toki eta une askotan. Adibidez, Asia eta Ozeano Bareko Elkarlaguntzarako Foroak (APEC) aurten Perun ospatu du bere urtea eta amaiera ekitaldian aipamen berezia egingo zaio Urdanetari.

Bitartean, bidean jorratutako harremanei

esker, kolaboraziorako ateak zabal-zabalik daude Ordizia, Euskadi eta Pazifikoko eta Ameriketako herrialde horien artean. Lankidetzarako aukera ezin hobek sortu dira kultura, hezkuntza eta merkataritza alorretan, besteak beste. Lehen urratsa eman da. Ordiziako Udala eta Eusko Jaurlaritza lanean ari dira beka programa bat martxan jartzeko Akapulkon eta Filipinetan.

Hartu-emanak onak izan dira eta horren adibide da, esaterako, EHU-UPV eta Limako San Martin de Porres Unibertsitatearen artean abenduan sinatuko den lankidetzaren hitzarmena.

Bestalde, Urdaneta 500 batzordeak argi du egindako lanak emaitzak emango dituela eta ospakizunak amaitzearekin ez dela dena bukatzen.

Kultura aldetik, zubi sendoak eraiki dira,

El Ayuntamiento de Ordizia y el Gobierno Vasco están trabajando conjuntamente para poner en marcha un proyecto de cooperación en México, Perú y Filipinas a través de un programa de becas.

La comisión Urdaneta confía en que las relaciones establecidas a lo largo de este año sigan abriendo nuevas posibilidades en el futuro tanto en el ámbito cultural como en el económico.

La proyección internacional que ha tenido el año Urdaneta ha superado con creces las previsiones iniciales. Un ejemplo de ello es que en la clausura del año APEC (Foro de Cooperación Económica Asia-Pacífico) que se celebra este año en Perú se hará una referencia específica a Urdaneta.



El cónsul honorario de Filipinas en Acapulco, Mario de la O Almazán; el embajador de Filipinas en México, Francisco M. Ortigas III; y el alcalde de Ordizia, José Miguel Santamaría Ezeiza.

zalantzarik gabe.

Aipatzekoa da azaroan Ordizian egingo den kongresua ere. Bertan Portugalek ere parte hartuko du, Lisboa informazio iturri baita. Urdanetaren inguruko informazio asko hango Torre do Tomboko artxibategian dago.

Egindako lan guztiak, hemen zein kanpoan, merkataritza alorrean ere aukera berriak eskaintzen ditu. Ordiziako Udalak Urdanetaren urteurrena ospatzeko babesleen laguntza jaso du eta oso eskertuta dago.

Eusko Jaurlaritzak lagundu du Industria, Merkataritza eta Turismo sailaren eta Kultura sailaren bidez; SPRIK ere bai, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxak, Casa Asiak, SECC estatu-sozietateak, Orklik eta Arcelor Mittalek.

## BARROCO AIRE

### A Capella Portuguesa abesbatzak Errenazimentu garaiko errepertorioa eskainiko du

Urdanetaren inguruko nazioarteko biltzarrari Donostiako Orfeoak emango dio amaiera, "Barroko Aire" egitarauaren baitan.

Andres Urdanetaren garaiko musikaz gozatzeko aukera izango da Ordizian, Oxforden sortutako "A Capella Portuguesa" abesbatzaren eskutik. Taldea Espainiako Urrezko Gizaldiko musika berpizteko asmoz sortu zen duela ia hogeitau urte eta Errenazimentuko eta Barroko garaiko obrek osatzen dute euren errepertorioa. Beraz, mendeetan atzera egiteko gonbitea luzatzen digute musika bidez. Bada Urdanetarekin loturiko beste emanaldi bat ere "Barroko

Aire" jaialdiaren barruan. Izan ere, azaro amaieran egingo den nazioarteko kongresuari amaiera Donostiako Orfeoak emango dio. Hitzordua jarrita dago.

Capella Portuguesa lleva casi veinte años haciendo renacer repertorios del Siglo de Oro español. La coral británica interpretará en Ordizia, dentro de la programación de "Barroko Aire" la música de la época de Carlos V.

El Orfeón Donostiarra clausurará el congreso internacional sobre Urdaneta que tendrá lugar en noviembre.



### La figura de Urdaneta, presente en Expo Zaragoza

Tanto el pabellón de las Islas del Pacífico, como el de Euskadi, fueron partícipes de los actos conmemorativos del V. centenario del nacimiento de Andrés de Urdaneta, que tuvieron lugar en la Expo Zaragoza en una jornada dedicada al navegante ordiziarra. Fue una inmejorable ocasión para presentar en la capital aragonesa el documental "El secreto de Urdaneta" de Mikel Urretabizkaia y el libro "Urdaneta y su tiempo" de José Ramón de Miguel Bosch, y que en diciembre se mostrarán también en las sedes de Casa Asia de Madrid y Barcelona.



## El Ayuntamiento de Ordizia ha destinado casi un millón de euros a cooperación

Ordiziako Udalak garapen bidean dauden herrialdeei laguntzen jarraitzen du.

Duela bi hamarkada ekin zion Ordiziako Udalak lankidetzako programa martxan jartzeari. Garatze bidean dauden herrialdeetara Udak aurrekontuen %0,7 bideratzen ere aitzindari izan zen eta azken urteetan %1eko laguntza ematen jarraitzen du. Baina tamalez, oraindik iparraren eta hegoaren arteko desberdintasunen lekuko izaten jarraitzen dugu. Ordiziako eskuak luzatzen segitzen du. Urdanetaren 500. urteurrenaren esaterako, beste eszenatoki bat marrazten lagundu du Peru, Mexiko eta Filipinekiko. Esku bete proiektu ekarri dituzte bidezidor berriei ekiteko. Horiek ahalbidetzeko, lankidetzako programetarako ematen diren diru-laguntzen araudia ere onartu berri da eta une hauetan erakusgai dago.

Ordiziak badu eskarmentua lankidetzan. Hogei urte dira garapen bidean dauden herrialdeei laguntzen hasi zela. Urte hauetan guztietan ia milioi bat euro bideratu ditu beharrez dauden tokietara baina aurrera begira ere asko dago egiteko. Urdanetaren V. mendeurrenaren ospakizunak ate asko zabaldu ditu eta lankidetzako proiektu berriak jarri ditu martxan, batik batik, Peru, Filipinas eta Mexikorekin. Esku artean duten guztia garatzeko, lankidetzarako diru-laguntzen araudia onartze bidean du Udalak eta une honetan erakusgai dago. Araudiaren arabera, besteak beste, proiektuen %20 gutxienez Udaletik kanpoko baliabideekin finantziatu beharko da eta 12 hilabeteko epean exekutatu. Gehienez, 20.000 euroko diru-laguntza emango du. Bestalde, 20 urte hauetan egindakoa jasotzeko balorazio lan bat egin da. Horren arabera, 34 herrialdeetara iritsi da Ordiziako emandako laguntza, 40 GKEren bitartez. Izan ere, aurkeztutako proiektuen ia %60 onartuak izan dira. Hau da, 240 aurkeztu dira 1988tik eta haietatik 136 izan dira onartutakoak.

Proiektu gehienak Ameriketara gauzatu dira, fondoaren %75,86 hara bideratu baita. Afrikara %16,32 jaso du eta Asiara %7,82. Diru kopuru handienak jaso dituzten GKEak dira Manos Unidas, Bakea eta Hirugarren Mundua, Mugen Gainetik, Oscar Romero eta Medicus Mundi.



Desde hace dos décadas, el Ayuntamiento destina una partida presupuestaria a programas de cooperación. En este tiempo, ha aportado en subvenciones casi un millón de euros.

Pero, y aunque en muchos países en vías de desarrollo cada vez hay una mayor masa de clase media, la diferencia entre el norte y el sur sigue siendo abismal. Por ello, el Ayuntamiento quiere seguir aportando su grano de arena. El 500 aniversario de Urdaneta ha dibujado un nuevo escenario en el que Ordizia dará su mano a Perú, Filipinas y México.

Para que se lleven a cabo diferentes proyectos de ayuda, el Ayuntamiento de Ordizia va a cambiar el reglamento regulador del programa de cooperación al desarrollo y en estos momentos está en fase de exposición pública.

### EN CIFRAS:

Desde 1988, el Ayuntamiento destina una partida presupuestaria para los proyectos de cooperación.

El Ayuntamiento fue pionero en alcanzar el 0,7% y hoy en día destina el 1% a países en vías de desarrollo.

Durante estos 20 años, se han presentado 240 proyectos y han sido aprobados 136.

La ayuda de Ordizia ha llegado a 34 países a través de 40 ONGs.


América ha recibido casi el 76% de los fondos, África algo más del 16% y el resto ha sido para Asia.

Las ONGs que más ayudas han recibido de Ordizia son Manos Unidas con casi 90.000 euros, Paz y Tercer Mundo, Mugen Gainetik, Oscar Romero y Medicus Mundi.

## Nazioarteko Kongresua “Urdaneta: gizon modernoa”

Adituek Urdanetaren balore zientifiko eta diplomatikoak izango dituzte hizpide.

Hainbat Unibertsitatetako adituek bilduko dira azaroaren 25etik 28ra Barrena Kultur Etxean egingo den Nazioarteko Kongresuan.



Estudiosos de Urdaneta tienen cita en Ordizia en el marco del congreso internacional que se celebrará del 25 al 28 de noviembre en el Palacio Barrena. Según los responsables de la iniciativa, sus objetivos son “realizar un fructífero intercambio de opiniones y conocimientos entre especialistas en esta materia de los distintos continentes y universidades;

y facilitar la difusión de nuevas investigaciones, tanto por parte de ponentes como comunicantes, que aporten mayor luz sobre la figura de Andrés de Urdaneta”.

El congreso pretende ser un “foro de encuentro, discusión, consenso y experimentación de los historiadores y expertos en torno a la figura de Urdaneta” y está dirigido a todas las personas interesadas en el tema.

Asimismo, tendrá, en opinión de los coordinadores, “un alto y riguroso nivel científico y, tanto por el marco teórico de discusión como por el origen de sus participantes, poseerá un marcado carácter internacional”. No hay más que ver la relación de los ponentes.

Los temas a tratar se dividirán en tres bloques. El primero de ellos se centrará en los orígenes de Urdaneta, en el viaje de Loaysa y en el contencioso de las Molucas y las tensiones con Portugal. El segundo incluye el retorno de Urdaneta a Castilla, la estancia en Nueva España y los preparativos del viaje a Filipinas. Y el contenido del tercer y último bloque profundizará sobre el tornaviaje y el papel en la economía del galeón de Manila.

### Ponentes y contenido del congreso

#### Martes 25

- Isacio Rodríguez Rodríguez (Padre agustino estudioso de Urdaneta):  
“Apunte biográfico sobre Andrés de Urdaneta”.
- Manuel Lobato (Instituto de Investigación Científica Tropical, Lisboa):  
“Acción política de Andrés de Urdaneta y su descripción geográfica de las islas de Moluca”.

#### Miércoles 26

- Patricio Hidalgo Nuchera (Universidad Autónoma, Madrid):  
“La figura de Andrés de Urdaneta en la historiografía indiana, conventual, documental y moderna”.
- Juan Gil Fernández (Universidad de Sevilla):  
“Andrés de Urdaneta en su entorno vasco”.
- José Ramón Miguel Bosch (Donostia): “Las dificultades del tornaviaje de Urdaneta”.

#### Jueves 27

- José Antonio Cervera Jiménez (Instituto Tecnológico de Monterrey, México):  
“El trabajo científico de Andrés de Urdaneta y el problema de la longitud geográfica”.
- Thomas Hillerkuss Finn (Universidad Autónoma de Zacatecas, México):  
“Andrés de Urdaneta y sus años de funcionario de la Corona en la Nueva España”.
- Cristina Barrón Soto (Universidad Iberoamericana, México):  
“La trascendencia del tornaviaje en el comercio transpacífico”.
- Antonio Francisco García-Abásolo (Universidad de Córdoba):  
“Los continuadores de Urdaneta. Vascos en la nueva ruta de la seda (siglos XVI a XVIII)”.

#### Viernes 28

- Ambeth R. Ocampo (Presidente del Instituto Nacional de Historia y ex ministro de Cultura de Filipinas):  
“Filipinas y los filipinos en el tiempo de Urdaneta”.
- Toshio Obi (Waseda University, Japón):  
“APEC: Nueva Unión Económica en la región del Pacífico después de 500 años”.

### Más información e inscripciones:

Tfno.: 943 80 56 30  
Email: [kultura@ordizia.org](mailto:kultura@ordizia.org)  
Web: [www.andresurdaneta.org](http://www.andresurdaneta.org)

## AGENDA

### Azaroak 7tik 18ra:

- EXPOSICIÓN FILATÉLICA – HOMENAJE A ANDRÉS DE URDANETA. Organizado por la Asociación de Filatelia y Numismática de Gipuzkoa, en Barrena Kultur Etxea.

### XXIII. BARROKO AIRE:

Emanaldi guztiak 20:00etan, Eliza Nagusian.

### Azaroak 8:

Ensemble Diatessaron / Olatz Saitua, Soprano / Guy Ferber, Trompeta barroca.  
Lanak: J.S.Bach (Brandenburgo 2.a, Cantata BWV 51).

### Azaroak 15:

Donostiako Talde Barrokoa.

### Azaroak 22:

A Capella Portuguesa (Oxford), Urdanetaren omenez.

### Azaroak 28:

Donostiako Orfeoia.

### Azaroak 25etik 28ra:

- CONGRESO INTERNACIONAL "ANDRÉS URDANETA: UN HOMBRE MODERNO", en Barrena Kultur Etxea.

### Abenduak 12,13,14:

- ARTISAUALDIA



### El Ayuntamiento de Ordizia ofrece un taller sobre pensamiento positivo dirigido a mujeres

El departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Ordizia ha organizado un taller de formación para el empoderamiento titulado "Aprender a ser una misma. Pensamiento positivo".

Lo ofrecerá la psicóloga Silvia Camio los martes de 17.30 a 19.30 horas a partir del 25 de noviembre.

El taller está dirigido a todas aquellas mujeres, mayores de 40 años, que quieran profundizar en el auto-conocimiento y desarrollar sus propias potencialidades para producir cambios positivos y mejoras en sus vidas.

Las sesiones serán cinco, se ofrecerán en castellano y tratarán los siguientes temas:

25 de noviembre: La importancia de ser única e irreplicable

2 de diciembre: Conocerse a una misma

9 de diciembre: El sentimiento de culpa y autoexigencia

16 de diciembre: Las emociones

23 de diciembre: Aprender a disfrutar de la vida

Las interesadas en acudir deberán dar su nombre en los Servicios Sociales (Educación Social), ubicados en el edificio Barretxe. La inscripción es de 15 euros.

Para más información: 943 805 610; kaltuna@ordizia.org

### Actividades del Centro Social de Ordizia

CURSOS YA INICIADOS: CIBERAULA Cursos informática. AULA ABIERTA Prácticas en ordenador por las mañanas. CORO (lunes 11:30h. Viernes 19:00h.). GIMNASIA (en polideportivo. Lunes-miércoles 16:00h. Viernes: -h.) Precio: 31,83€ / trimestre.

MANUALES (Con monitora: martes 17:00 - 19:00h.). RELAJACION (2 grupos. Lista de espera) Precio: 7 €/trimestre. BAILES DE SALON (Miércoles 18:30h.) Precio: 25 €/cuatrimestre. GIMNASIA MENTAL (Martes 15:30-17:00h.) Precio: 15 € Inscripciones:

martes y jueves, en la oficina de 16:00 a 18:00h. Miércoles 10:30 -12:30h.

MARCHAS A PIE: DÍA 13, jueves: Ordizia - Beasain - Camineros (Loinaz) - Beasain - Ordizia. DÍA 27, jueves: Ordizia - Itsasondo - La Calera - Ordizia Salida: 15:30h.

EXCURSIONES: DÍA 20 de noviembre, jueves: BAZTAN. 28 € INSCRIPCIÓN: 11 noviembre. (Sorteo: el 13).

CAMPEONATO DE NAVIDAD: Comenzarán el 24 de noviembre y hasta el 10 de diciembre. Apuntarse previamente en los listados del bar. Noviembre: Día 24: Mus. Día 25: Tute. Día 26: Seises. Día 28: Puntu. Diciembre: Día 1: Escoba. Día 2: Dominó. Día 3: Brisca. Día 4: Damas. Día 9: Parchis. Día 10: Toka, Rana, Bote y Billar.

FIESTA: DÍA 8, sábado, 17:00h. CASTAÑADA y BAILE con PELI (Para colaborar en picar castañas: día 7, viernes, a las 16:00h. en la sociedad.

BAILE: DÍA 22, sábado, a las 18:30h. en la Cafetería, con PELI

BINGO: Día 27, jueves, a las 18:00h. en la Cafetería.

PARA MÁS INFORMACIÓN:

JUNTA DIRECTIVA - ☎: 943-88-92-88 Kristina (Educación Social- Barretxe) ☎ 943-80-56-10

## Telefono interesgarriak - Teléfonos de interés

### UDAL BULEGOAK - OFICINAS MUNICIPALES

Idazkaritza - Secretaría..... 943 88 58 50

Kontu hartzailetza - Intervención ..... 943 80 56 11

Obra bulegoa / - Oficina técnica..... 943 80 56 20

Euskara ..... 943 80 56 22

Udaltzainak - Policía Municipal..... 943 80 56 16

### GIZARTE ZERBITZUAK - SERVICIOS SOCIALES

Gizarte ongizatea - Bienestar social..... 943 80 56 10

Kontsumitzaileen Informazio Bulegoa

Oficina de información al consumidor..... 943 88 16 42

San Jose egoitza

Residencia San José..... 943 88 11 19

### KULTURA - CULTURA

Kultura saila - Departamento de cultura..... 943 80 56 30

Liburutegia - Biblioteca ..... 943 80 56 35

Jaialdiak eta feriak - Ferias y festejos ..... 943 80 56 32

Gazte informazioa - Información juvenil ..... 943 80 56 34

Herri Antzokia ..... 943 88 07 44

D'elikatuz

(Turismo Bulegoa - Oficina de turismo) ..... 943 88 22 90

### KIROLAK - DEPORTES

Majori Kirolegia - Polideportivo Majori..... 943 88 93 33

Beti-Alai Pilotalekua - Frontón Beti-Alai..... 943 88 77 32

### BESTE ZERBITZUAK - OTROS SERVICIOS

Udal ur zentrala - Central municipal de aguas..... 943 88 04 09

### HEZKUNTZA - EDUCACIÓN

Alotza Haur Eskola - Guardería Alotza ..... 943 88 15 60

### Goierri Lanbide Eskola

Escuela profesional Goierri..... 943 88 00 62

### Jakintza Haur Hezkuntza

Educación infantil Jakintza ..... 943 16 16 76

Jakintza Ikastola - Ikastola Jakintza ..... 943 16 05 40

Musika Eskola - Escuela de Música ..... 943 88 87 52

Oianguren Institutua - Instituto Oianguren ..... 943 88 08 62

### Urdaneta Haur Hezkuntza

Educación infantil Urdaneta..... 943 16 12 68

Urdaneta Ikastetxea - Colegio Urdaneta..... 943 88 27 80

Ordiziako Berritzegunea - PAT-COP ..... 943 88 79 50

Helduen Eskola Publikoa (HEP)

Escuela Pública de Adultos (EPA)..... 943 16 05 36

### HERRIKO BESTE HAINBAT ZERBITZU - OTROS SERVICIOS DEL MUNICIPIO

Anbulatorioa - Ambulatorio ..... 943 80 58 00

Bake Epaitegia - Juzgado de paz ..... 943 88 11 35

Goieki ..... 943 16 15 37

Goimen ..... 943 16 12 44

Jubilatuaren Etxea - Hogar del jubilado ..... 943 88 92 88

KZgunea ..... 943 88 43 78

### Merkataritza Aholkularia

Asistencia técnica al comercio ..... 943 16 06 73

Nekazaritza Kamara - Cámara de agricultura..... 943 88 54 70

Oianguren Parkea - Parque Oianguren..... 943 16 13 71

Suhiltzaileak - Bomberos ..... 112

DYA ..... 943 46 46 22

# Ordizia gaur




IRUNE MUJICA Y ESTIBALIZ GARCÍA  
Socias de la Asociación de Comerciantes Ordizian

"Estamos muy contentas con la Feria de Stock"



2008ko azaroa, 12. zk.



## Babes Ofizialeko 415 ETXEBIZITZA San Juan auzoan



El Consejo Municipal de Bienestar Social echa a andar



El vial entre Upabi y la salida a la N-1 se convertirá en una carretera bidireccional de calidad



Bidegorri sarearen lehen zatia eraikitzen abenduan hasiko dira



Ordiziako Udalak azken 20 urtean 136 lankidetzak proiektu babestu ditu